

# Lekeitioko hiru gurutze-tokiak

Iñaki Madariaga Valle  
Itzulpena: Jon Mikel Seijo

San Agustineko gurutze-tokia – Elorrio

**G**urutze-tokiak elementu arkitektoniko erlijiosoak dira, antzina hiri guneen mugetan ezartzen ohi zirenak. Hiribilduen kasuetan gurutze-tokiak errebaletan kokatzen ziren, harresien atarietara sartzeko bideetan.

Gurutze-tokia honela definitzen da: *“Lugar de voto que suele haber a las entradas o salidas de los pueblos, o en los pueblos mismos, con una cruz o imagen. También denominado cruz de término. Consiste generalmente en unas gradas de planta circular o poligonal sobre las que se eleva un fuste rematado en nudo o capitel que sustenta la cruz de piedra labrada en cantería. En algunos pueblos los cobijan bajo templete (cruz cubierta) denominados cruz-humilladero.”*<sup>(1)</sup>

Ohikoa zen gurutze-tokia eraikitzen zen tokian aurretiaz gurutzadura edo mugarte-gurutzea egoitea. Honela definitzen den elementua: *“Cruz de piedra, de dimensiones variables, que se coloca en el cruce de caminos y en los atrios. Suele alzarse sobre una plataforma con peldaños y tiene esculpido el crucifijo y, frecuentemente además, la Piedad o Quinta Angustia.”*<sup>(2)</sup>

Mugarte-gurutze asko gurutze-toki estaliak bihurtu ziren, teilatu edo teilatutxo baten bidez estaliz. Era berean, gurutze-toki estali batzuk baseliza maila lortu zuten hormak itxiz.<sup>(3)</sup>

Hiribilduen irteeretan kokaturiko mugarte-gurutzeak hiribilduen mugak zehazteko modu bat ziren, horrela aldamenetako elizateekin sor zitezkeen jurisdikzio-auzi guztiak saihesten baitziren. Horrez gainera, Kontzejuak hiribilduari ematen zion zerbitzu bat ere bazen, biztanleen bizitza kalitatea hobetzeko, bai materiala zein izpirituala. Hiribildua, gainera, mugarte-gurutzearekin herri altzari bat gehiagoz ederresten zen eta auzokoen bizitza hobetzen zuen babespen-sinbolo baten bidez. Lekeitiok bere harresiaren atari guztietan irudi erlijioso bat zuen, eta hiru gurutze-toki errebaletan. Han biztanleek indar zerutarrei otoi egiten zieten beren arimen alde, harresi-esparruak ematen zien segurtasuna uztera baitzihoazen, eta *Lur Lau* basatira abiarazi.<sup>(4)</sup>

Gurutze-toki estaliak Erdi Aro Behean ugaritu ziren. Toki horiek ez ziren auzokoen, bidaiarien eta oinezkoen otoi lekuak bakarrik, baita elkarguneak ere. Lekeitioko Andra Maria kabildoko apaizak gurutze-tokietan zain egoten ziren beren jurisdikzioko elizateetatik zetozen hileta-segizioei; errespontsua eman ondoren, parrokiako elizaraino laguntzeko. Hori 1519rarte egin zen Ispaster, Gizaburuaga eta Amorotoko elizateetatik zetozen segizioekin. Mendexatik zetozenek 1545rarte iraun zuten. Elizate horietako parrokiak baselizatzen hartzen ziren eta ez zuten sakramentuak emateko baimenik. Herri horietako auzokoak derrigortuta zeuden Lekeitioko hiribilduko parrokiara zuzentzera, sakramentuak hartu eta beren hilak lurperatu ahal izateko.

Benetako drama jasan zuten Ispaster, Gizaburuaga eta Amorotoko auzokoek 1519ko urtera arte. Elizateetako parroketan apaizik bizi ez zenez, auzokoek penitentziarik gabe eta beren seme-alabak bataiorik hartu gabe hiltzen ziren. Auzokoren bat hiltzen zenean, legoek eramaten zuten Lekeitioko Andra Maria elizaraino lurperatzera, gurutze eta presbiteroaren laguntzarik gabe, *animalia basati* bat legez, eresi eta eliz ospakizunik gabe. Lekeitioko eliza nagusiko apaizek uko egiten zioten elizateetara joateari eta hildakoaren gorpua hiribilduraino laguntzeari. Umeak bekatuan hil ez zitezen, Lekeitioko parrokiara bataiatzera eramaten zituzten, baina eguraldi txarrak ekartzen zuen ume horietako asko bidean hiltzea, neguan ba-

tez ere.<sup>(5)</sup> Azkenean, Ispaster, Gizaburuaga eta Amorotoko elizateek Lekeitioko Santa Maria parrokiak nagusiarekin hirurogei urtetan (1458-1519) auzietan aritu ondoren, elizate horietako baselizak sakramentu-parrokia bihurtu ziren Leon X. Aita Santuak 1519an emandako Buldaren bidez.<sup>(6)</sup>

Horixe berori gertatu zen Mendexarekin 26 urte geroago. Auzokoen kexen ondorioz San Pedro baseliza sakramentu-parrokia bihurtu zen 1545ean Calahorrako obispo Juan Bernal de Lucoren manamenduz. Hauxe agindu zuen:

*“...que el Cabildo Eclesiastico de Sta.*

*Maria de Lequeitio pusiese en la Hermita de Sn. Pedro de Mendexa Pila bautismal,*

*Sacra-*

*mentos, y un Clerigo idoneo de su Cabildo con residencia continua, respecto de que morian los enfermos,*

*y parbulos, sin sacramentos de*

*confesion, comunion y bautismo, por*

*la distancia considerable, y peligros de*

*pasar por el puente de Ysunza y caminos*

*de su cercania, en tiempo de mareas, como*

*le constaba de vista ocular, y una infor-*

*macion hecha en esta razon por los*

*vecinos de Mendexa...”*.<sup>(7)</sup>

Lekeitioko errebaletako gurutze-tokiei buruz dagoen dokumentuzko erreferentziarik hurbilena XVI. mendekoa da. Dokumentu horiek dira Lekeitiok errebaletan zituen hiru gurutze-tokiak lekutu, datatu eta deskribatzeko zereginean lagunduko diguten zutabeak: Pietatearen gurutze-tokia, Isuntza zubiko gurutze-tokia eta Atari Zaharreko gurutze-tokia.



“Recuerdos y bellezas de España”, Fundación Juanelo Turriano

## Pietatearen gurutze-tokia

Bada arrazoirik Pietatearen Santu Kristo baseliza eraiki aurretik, 1675. urterantz, toki berean elementu arkitektoniko erlijiosoren bat zegoela baieztatzea eramaten nauenik: gurutzadura edo gurutze-tokiren bat. Hau, Erdi Aroan ohikoa zen legez, Apalloa edo Pietatearen atarira sartzeko bidean egongo zen, eta arrazoi honengatik bi izen horiekin agertzen da sasoiko dokumentazioan.

Vicente de Urquiza parrokoak bere *“Iglesia Parroquial de Santa Maria de Lequeitio”* liburuan bazuen baseliza aurretik elementuren bat zegoen susmorik:

*“El capitán D. Pedro de Aguirre dispuso en su testamento que su heredero, Francisco de Garro, esposo de Josefa-Ignacia de Aguirre Maguregui, hermana del testador, reparase o hiciese de nueva planta, de los bienes que el testador dejó, una ermita con la advocación de la Piedad, gastando en ello lo necesario, aunque excediese de la cantidad de mil ducados.” [...]*

*Es probable que hubiera anteriormente en este lugar, otra pequeña ermita, o simplemente, un humilladero, según parece desprenderse de la anterior disposición del donante.”*

Horrek animatu ninduen notarioen iturri dokumentalak ikertzera. Salerosketa-eskriturak, eta testamentuek batez ere, datu baliagarriak ematen dizkigute elizei, baselizei eta gurutze-tokiei buruz. Testamentuetan interesatuak aitortzen zuen zein instituzio edo elementu erlijiosori zuzentzen zizkion bere limosna (*mandas pías*).<sup>(8)</sup>

1536koa da Pietatearen gurutze-tokiari buruz aurkitu dugun lehenengo dokumentuzko erreferentzia, Catalina de Acharen testamentuan hain zuzen: *“...Yten mando a [...] la obra de Sant Jº de la Talaya un ducado de oro, e a la lumbre de Santa Maria del portal de Arranguy medio ducado, e a Santa Maria la Madalena e Santa Catelyna de Ançoriz e Sant Nycolas e Sant Christobal e Sant Roco e Crus + de Atea e Piedad cada diez maravedis...”*.<sup>(9)</sup>

1556an, García de Ibaseta eskribauaren

testamentuan, Pietatearen gurutze-tokia aipatzen da berriro: *“...Y a la [...] Cruz de Atea y a la Piedad e Ymagen de la puente de Esunça [...] a todos le cae cada medio rreal de plata...”*<sup>(10)</sup>

Domeca Ruiz del Puertoren lehen testamentuan, 1582koa, hiru gurutze-tokiak aipatzen dira espresuki jadanik: *“Yten a [...] los tres humilladeros de Esunça, Apallua y Hatea [...] a cada sendos reales.”*<sup>(11)</sup>

Autore beraren bigarren testamentuan, 1582koa baita ere, berriro aipatzen dira hiru gurutze-tokiak, baina oraingoa haietako bati *la Piedad* izendatzen zaio: *“a los tres humilladeros del Portal biexo, Esunssa y la Piedad a sendos reales.”*<sup>(12)</sup>

Teresa Iñiguez de Olearen testamentuan, 1590ekoa, hiru gurutze-tokiei buruzko aipamena egiten da berriro; eta Pietatearena *Quinta Angustia de Apallua* legez aipatzen dute: *“E a los humilladeros del Cruçifixo del Portal, Ymagen de Hesunça e Quinta Angustia de Apallua cada medio real...”*<sup>(13)</sup>

Jaione Velilla Iriondok bere *“Arquitectura y Urbanismo en Lekeitio: siglos XIV al XVIII”* tesiari, Pietatearen baselizari buruz hauxe dio: *“La de la Piedad tiene como ermita un antecedente en un humilladero situado en las proximidades del portal de Apalloa”,* eta 1590eko dokumentu baten zati bat transkribatzen digu: *“Otros materiales y ocho oficiales que entraron en ello, así carpinteros como de canteros en las cosas muy neçesarias como heran la pared del crusifixo de Apallua como otros porticos...”*<sup>(14)</sup>

Ez dago zalantzarik, bada, *“Crucifijo de Apallua o humilladero de La Piedad”* izendaturiko gurutze-tokia bazegoela 1536rako; eta 1590. urterako teilatu bidez estalita eta horma bidez itxita zegoela.


Andraota Ruiz de Urquizaren testamentuan, 1614koa, berriro ere *“humilladero”* eta *“la Piedad”* hitzak erabiltzen dira: *“Yten mando a la Piedad y umyladero de la Quinta Angustia dos reales.”*<sup>(15)</sup>

1660an, mahasti baten erosketari buruzko eskriturak aipamen argia egiten du Pietatearen gurutze-tokiaz: *“sita junto al humilladero de la Piedad de la villa de Lequeitio...”*<sup>(16)</sup> Eta hamaika urte geroago lurra Lekeitioko Udalak eskuratu zuen 1671n Gonzalo Nieto de Yarzarekin egindako truke baten bidez,<sup>(17)</sup> Pietatearen Santu Kristoa eraikitzeko.





Pietatearen gurutze-tokia. Birsortzea.  
Jon Zubiaurren marrazkia



Isuntza zubiko gurutze-tokiaren birsortzea, Jon Zubiaurren marrazkia

## Isuntza zubiko gurutze-tokia

Lekeitioko historiari buruz idatzi duten autoreen artean, birek baino ez dute aipatzen Isuntza zubiko gurutze-tokia: Joaquin del Valle de Lersundik eta Jaione Velilla Iriondok.

Joaquin del Vallek bere *“La primitiva villa de Lequeitio”* obran Lekeitio XVI. mendean nolako zen deskribatzean, *El exate* ataritik izen bereko errebalera irtetean *Esunça* ingururako bideari ekiteko, hauxe esaten du:

*“En el arrabal había una venta o posada. A la derecha se encontraba Ynsaustia. Siguiendo el camino de Esunça hacia el puerto de la ría, se encontraba la ermita de sant Roco (San Roque o Santa Elena que se reedificó en 1523), y un humilladero.”*

Jaione Velilla Iriondok bere *“Arquitectura y Urbanismo en Lekeitio: siglos XIV al XVIII”* lanean gurutze-toki horri buruzko datuak aipatzen ditu 1727 eta 1770 urteen bitarteko zenbait pasarteetan.

Jakina da gurutze-tokia *Esunça* inguru-

ko zubi zaharraren ondoan zegoela, Andres Mendietaren ontziola eta egungo Isuntza zubiaren artean, zubi berritik hurbilago ontziolatik baino.

Gurutze-toki horri buruzko informazioa urria bada ere, esan daiteke XVIII. mendean estalita eta ormak itxita zegoela. Kutsu morfologiko horiek honako dokumentu hauetatik deduzitzen dira, Jaione Velilla Iriondok transkribatu eta argitaratuak:

1727-1728ko ekitaldian Kontzejuak hainbat konponketa ordaindu zituen: *“Yten 239 reales pagados a Joseph de Lariz Veazcoa por lo obrado en el humilladero de Yssunza y su puente durante el año como consta y parece de la memoria [...] Yten 18 reales empleados en el dicho humilladero de Yssunza por enlosar, retocar las paredes y algunos clavos que se pusieron en el tejado”*<sup>(18)</sup>

1770ean, Isuntzako zubi berriaren proiektua tratatzean, gurutze-toki hau *“la hermita”*

lez agertzen da, teilatua zuelako eta ormak itxita: *“Y así discuro que el unico medio seguro, sin riesgo y de menor costa para lo sucesivo es de puente de un arco [...] y el arco de menor diametro más bentajoso se podra formar al remate del muro desde el humilladero [...] En este sitio que elijo se vaxa descansadamente por la otra parte del rio al camino actual; y por esta parte bastara que se comienze a subir insensiblemente desde la hermita para que sea suave el ascenso y no se necesite de terreno ajeno.”*<sup>(19)</sup>

Testamentuetara joko dugu berriro, zeuden gurutze-tokiez informazio gehien ematen diguten iturri dokumentaletara alegia, testamentugileak zein eliza, baseliza edo gurutze-tokira zuzentzen duen bere limosna (*mandas pías*) aitortzen duenean.

Hainbat testamentutan ikusten dugu gurutze-toki hori Pilarreko Ama Birjinari zuzendua zegoela eta bertan Birjinaren irudia ondrazten zela, zubia babestea zuelarik helburu.

San Juan de Ormaechearen testamentuan, 1546koa, hauxe aurkitzen dugu: “Yten mando [...] a **Nuestra Señora del Pilar de la puente de Hesunça** cada diez reales.”<sup>(20)</sup>

Irudi hori berriro aipatzen da 1590ean, Teresa Iñiguez de Olearen testamentuan: “Yten [...] a los humilladeros del Cruçifixo del Portal, **Ymagen de Hesunça** e Quinta Angustia de Apallua cada medio real...”<sup>(21)</sup>

Beste behin, 1768 eta 1770 urteen bitartean, Isuntza zubi berriaren proiektua aipatzean hauxe esaten da: “Frente a la **hermita e humilladero de Nuestra Señora de Ysunza** [...] el arco de menor diametro mas bentajoso se podra formar al remate [...] desde el humilladero”.<sup>(22)</sup>

1546. urtetik aurrera ugari dira gurutze-toki horri buruzko aipamen dokumentalak, harik eta Isuntzako zubi berria eraikitzen hasten direnean eteten diren arte. (Armada-ko ingeniari Jose Santos Calderonen diseinua, 1772koa). Batzutan “el humilladero” aipatzen dute; eta bestetan, “la hermita”:

1546an: “Yten mando [...] a **Nuestra Señora del Pilar de la puente de Hesunça** cada diez reales”.<sup>(23)</sup>

1582an hainbat testamentutan aurkitzen dugu:

“... a los tres humilladeros del Portal biexo, **Esunssa** y la Piedad a sendos reales”.<sup>(24)</sup>

“Yten a [...] los **tres humilladeros de Esunça, Apallua y Hatea**...”<sup>(25)</sup>

1614an: “Yten mando a los umyladeros del Portal Viejo y **Essunça** a sendos reales.”<sup>(26)</sup>

1730ean: “Escritura de venta [...] de una heredad sita sobre el **humilladero de Isunza**, en jurisdicción de la citada villa, por mil quinientos cuarenta y nueve reales”.<sup>(27)</sup>

1770ean hainbat dokumentu ditugu:

“Se hace presente el reconocimiento realizado por Don Xabier Ignacio de Echeverria y el nuevo proyecto de puente de un arco proyectado en distinto paraje que el antiguo de madera al remate del murallon que sigue desde el **humilladero para Zubieta**...”<sup>(28)</sup>

“... condiciones dispuestas por el maestro Francisco de Ybero en el termino de Ysunza [...] donde parece hubo antes otro de madera con los mismos tres arcos, siendo el uno abierto o levadizo por la parte de **la hermita** ...”<sup>(29)</sup>

Ignacio de Echeverriaren txostenean: “Y asi discorro que el unico medio seguro, sin riesgo y de menor costa para lo sucesibo es de puente de un arco [...] y el arco de menor diametro más

bentajoso se podra formar al remate del muro desde **el humilladero** [...] En este sitio que elijo se vaxa descansadamente por la otra parte del rio al camino actual; y por esta parte bastara que se comienze a subir insensiblemente desde **la hermita** para que sea suabe el ascenso y no se necesite de terreno ajeno.”<sup>(30)</sup>

Lehenago ikusi dugunez Mendexako elizateko eliztarrek arazo larriak zituzten Lea ibai gaineko Isuntza zubia zeharkatu eta Lekeitioko parrokiara sakramentuak hartzera joateko: “por la distancia considerable, y peligros de pasar por el puente de Ysunza y caminos de su cercania, en tiempo de mareas”. Askotan, gainera, zubia egoera txarrean aurkitzen zen erabili ahal izateko, uholdeek zutabeak hondatzen zituztelako. Arazoak are larriagoak bihurtzen ziren Mendexako auzokoek auzoko baten gorpua eraman behar zutenean Lekeitioko parrokiara. Horrelako egoeratan derrigorrezkoa

zen geldialdiren bat egitea hiribildutik hurbilen zegoen baserriren batetan, Isuntzako gurutze-tokira iritsi aurretik oinetakoak aldatu eta apaintzeko. Hor, jakina denez, Lekeitioko Santa Maria kabildoko apaizak zain zituzten; eta errespontsua eman ondoren, hileta-segizioa eliza nagusira zuzentzen zen. Arazo horiek 1545ean amaitu ziren, Calahorrako obispo Juan Bernal de Lucok emandako manamenduaren bidez elizate horretako San Pedro baseliza sakramentu-parrokia bihurtu baitzuen.

Esan dudanez, gurutze-toki horri buruzko aipamenak 1772an utzi zizkioten agertzeari. Beste alde batetik, J.R. de Iturrizaren “Historia General de Vizcaya” eskuizkribuan, 1799koa, Atari Zaharreko gurutze-tokia bakarrik aipatzen da. Horrek susmarazten du Isuntza zubi-ko gurutze-tokia desagertu egin zela zubi berriaren eraikuntza lanek eragindako aldaketen poderioz.



Isuntza guneko planoak – Birsortzea. Jon Zubiaurren marrazkia



Ateko gurutze-tokia – Birsortzea.

## Atari Zaharreko gurutze-tokia

Hauxe da Lekeitiok izan zituen hiru gurutze-tokietatik gure egunetara arte iritsi den bakarra. Atea kalearen amaieran aurkitzen da, Ateako erreal zaharrean, Ateako atari desagertutik hurbil.

Gurutzadura bat da, lau pilare faszikularren gainean teilape-egitura batek estaltzen duena. Pilare horiek datazio-elementu argiak dira dokumentazioak dioena egiaztatzeko: Lekeitioko Udalak orubea 1514an erosi zuen, gurutze-tokia eraikitzeko.<sup>(31)</sup> Beste autore batzuek diotenez, *gurutzadura estaliaren ereduarekin bat dator, gurutze-toki lez ere izendatua.*

Jesus Muñiz Petralandak agertarazten digu gurutze-toki honen barnean hauxe zegoela: *“reemplazando al crucero original se dispone hoy una talla de Cristo expirante, de silueta sinuosa. Aunque no hemos podido examinarla directamente, encerrada como está en una hornacina, la consideramos obra reciente inspirada en modelos barrocos.”*<sup>(32)</sup>

1514ko uztailaren 11n, Nicolas del Puertok: *“...vendia e dava e dio la tierra que es en el Portal Viejo de la dicha villa, donde al presente se quiere hazer vna crus, para la dicha crus para que se haga en ella e para que qualquier que huvie-*

*re de hazer la dicha crus se aprobeche della, por presçio e quantia de tres mill e dozientos e veynte maravedis...”*<sup>(33)</sup>

Gaur egunera arte autoreetako inork ez digu daturik eman haren eraikuntza-egunaz, diseinueren egileaz edo landu zuen hargin maisuaz. Jaione Velilla Iriondok bere *“Arquitectura y Urbanismo en Lekeitio: siglos XIV al XVIII”* obran, Lekeitioko Udal Artxiboko dokumentu bat oinarri hartuta, hauxe idatzi zuen: *“En 1528 estaba construido y se dice que, como en las otras imágenes situadas en espacios públicos, tenía una lámpara para poner luz por las noches.”*<sup>(34)</sup>

Oraintsu aipamen batzuk aurkitu ditugu **gurutze** baten eraikuntzari buruz argia ematen dutenak. Posible da *Atari Zaharreko Gurutzea* edo *Ateako Gurutze-tokia* izenekoak izatea. Aipamen horiek, lurra erosi zireneko egunetakoak (1514), "*Libro de acuerdos y cuentas del conçejo de la noble villa de Lequeitio*" (1508-1519) liburuan aurkitzen dira. Korregidoreak *pisu eta neurrien* berrikuspena egitean ezarritako zigorretatik hauek aipatuko ditugu:

- 1515ean, Korregidoreak harategia bisitatu zuen, eta bertan pisuekin iruzurra egiten zela aurkitu. Horregatik harakina "*çient maravedis de pena para la crus que yo mando hazer en esta villa.*" isuna ordaintzera zigortu zuen.

- Urte berean, Korregidoreak *Toda la candelera* dendan pisuak berrikustean hor ere iruzurra egiten zutela aurkitu zuen. Eta horren ondorioz "*dosientos maravedis, los quales sean para haser la dicha crus.*" isuna ordaintzera zigortu zuten.

- 1515eko urte bereko maiatzean, Juan Martinez de Legarzak, Lekeitioko hiribilduko Kontzejuko sindiko leial eta prokuradoreak aitortzen du Martin de Chimunt hargin maisuari "*por la hesaminaçion que fizo por el hede-fiçio que labran en la cruz.*" ordaindu ziotela.

- 1516ko urtarrilean, Korregidoreak hiribilduko merkatariei ezarritako zigorrak gu-

rutze-tokiaren obra ordaintzeko erabiltzen jarraitu zuten. Oraingoan zigortua *maestre lohan* da. Badirudi *regatona de azeyte Toda de Acha* delakoaren neurrietako bat txikiagoa egin zuela. Horregatik "*vn ducado de oro, el qual aplico para la cruz mandada hazer por el dicho corregidor.*" isuna ordaintzera zigortu zuten.

Edozein dela ere 1515ean eraikitzen ari ziren gurutze-tokia edo mugarte-gurutzea, Bizkaiko Jaurerriko Korregidoreak aginduta izan zen<sup>(35)</sup>. Martin de Chimunt hargin maisuak 1515eko maiatzean obrari egin zion azterketak erakusten du obra amaituta zegoela ordurako.

Hiribilduko kontzejua zen herriko hirigintzari eta apaindurari dagozkion zereginetan agindu eta erabakitzen zuena. Kasu honetan, baina, Bizkaiko Jaurerriko Korregidoreak agindu zuen mugarte-gurutze horren eraikuntza. Horren azalpena da askotan sartzen zutela eskua Bizkaiko administrazioan, bai udalerrietan zein Batzar Orokorretan. Horrekin argi utzi nahi izaten zuten Gaztelako Koroia zela agintzen zuena, eta Bizkaiko instituzioak haren aginduetara makurtu behar zirela. Gaztelako Koroia agintaritzat indartzeko modu bat baino ez da esku-hartze urbanistiko hau, baita udalerrri berari dagozkion zereginetan

ere. Korregidorea udalerriri onurak ekartzen eta ederresten ari zen; biztanleei erakutsi nahi zieten Koroia euren interesak zaintzen zituztela.<sup>(36)</sup>

Atari Zaharreko gurutze-tokia berriro agertzen da 1528ko dokumentu batean. Bertan, ekainaren 6an izandako Erregimentuko batzarrean erabaki zuten Atari Zaharreko gurutzeko lanpara piztu eta itzaltzen aritzen zen pertsona kontribuzioa ordaintzetatik salbuestea:

"*Este dia en Regimiento mandaron que la persona que syrbe en aderezar la lampara de la crus + del Portal viejo que sea franco de pagar pedido de buenos diepnos (sic) / e syrba vien e conducidamente...*"<sup>(37)</sup>

1660an Ateako errebalaren gunea eta haren inguruak egoera oso txarrean aurkitu behar ziren, sasoi hartako dokumentu batek dioenez. Antonio Adan de Yartzak, Zubieta oinetxeko jabeak, eskaria egin zuen, Lekeitioko Santa Maria elizako kabildoko apaizek, hildakoek Zubietatik parrokiaraino laguntzeko, ("*con sobrepellices, capas, y ornamentos preciosos, y la Villa franquease las andas de la fabrica para conducirlos*"). Santa Maria elizako kabildoak ezezkoa eman zion honegatik:

"*el camino y distancia que ay desde la dicha cassa de Çubieta a la yglesia matriz y*



Gurutze-tokitik elizara.  
"Vida Vasca" 1969.



desde esta respectiva son tan considerables que se considera en dicha distancia despoblado y es menos de un q<sup>to</sup> de legua en tierra tan rrasa que creziendo las llubias no puede nabegarse si no es a caballo, de que resulta la indezençia a que los saçerдotes vengan con los dichos ornamentos sacros, y tambien el que a quatro entierros con fuertes aires no quedara capa ni otra cosa que no se hiçiera pedazos.”<sup>(38)</sup>

Dokumentu berean ikusten dugu bidearen egoera txarra ez zela Zubietako hildakoei laguntza ematera ez joatearen arrazoi bakarra. Arrazoi nagusia zen Zubietako oinetxea Lekeitioko hiribilduko jurisdikziotik kanpo zegoela 1619ko urteaz gerostik,<sup>(39)</sup> haren jabe Antonio Navarro de Larrategik *Errege Sari* bat erosi baitzuen horretarako:

“no tiene fundamento la parte contraria [Antonio Adán de Yarza] en su intento de que se le den las andas de la fabrica para dichos entierros **porque estas solo tocan a los vezinos de la dicha villa que son de su jurisdiccion y territorio, y no a los exemptos de ella,** [...] y como quiera que la casa de la parte contraria se halla **fuera de la dicha jurisdiccion con las calidades de esempta como las demas del ynfançonado, ni puede en posesion ni en**

*propiedad llamarse a pretension.*”<sup>(40)</sup>

Azken arrazoi honengatik Santa Maria elizako kabildoak erabaki zuten Zubietako oinetxea infanzonazgo edo Lur Lauko beste bat legez tratatzea. Horrek esan nahi zuen kabildoko apaizak, parrokiako gurutzeara eramanda, Atari Zaharreko gurutze-tokian hartuko zuela Zubietako oinetxetik hildakoren bat zekarren segizioa, hiribilduko parrokiak aldamenetako elizateetan zituen eliztarrekin egiten zuen bezala. Horretarako, aipatu gurutze-tokian erresponstua eman ondoren, parrokiako elizaraino eramateko segizioari ekingo zioten.

### Onorioak

Izaera erlijiosoko elementu arkitektoniko hauek jarraitu duten eboluzio-prozesuak honelako faseak izango zituen:

XVI. mende aurretik, *mugarte-gurutze* bat eraikiko zen hiribilduko sarrera guztietan.

XVI. mendean, *mugarte-gurutze* lau zutabe gaineko teilatu batekin estaliko zen, *gurutze estali* bihurtuz.

XVII. mendean *gurutze estalia* hormekin estaliko zen, sarrera nagusia izan ezik. Hau irekita uzten da, edo burdin hesi batekin estali, baina *gurutze-tokia* izaten jarraitzen du.


Hurrengo mendeetan birmoldatzen dira, eta hormaz guztiz estali. Horregatik eraikinak aurkitzen ditugu, non dokumentazioan *gurutze-toki* lez izendatzen diren, baina baselizaren ezaugarri guztiak dituzte.

Azpimarratu nahi dut, halaber, *Atari Zaharreko Gurutzeari* eta *Apallua edo Pieta-tearen Gurutzeari* dokumentuetan ematen dieten izendapenagatik, badirudi *gurutze* zirela. Hau da, jatorrian harrizko gurutzek zirela, bertan gurutze zizelkatu bat zutenak eta mailak zituzten plataforma baten gainean altxatuak. *Isuntza zubiko Pilarreko Andra Mariaren* gurutze-tokia ere jatorrian gurutzadura izan zitekeen. Esandakoarekin, bada, ondoriozta dezakegu elementu hauen guztien itxura aldatzen joan dela mendeak aurrera jo ahala, beharizan eta momentuko moden arabera.

Amaitzeko komentatu nahi dut ez dela nahastu behar *Isuntza zubiko Pilarreko Andra Mariaren* gurutze-tokia Santa Elena eta San Roke baselizarekin. Hau XVI. mendeko dokumentazioan “*Yglesia de la Santa Cruz de Esunça*” lez agertzen baita, 1523an “*Ermita de Santa Elena o Santa Cruz*”<sup>(41)</sup> lez sortua izan zelako.



Lekeitioko "anda" XX. mendera arte erabili zirenak hildakoak eramateko.



## NOTAK

- (1) Enciclopedia Universal Ilustrada Europeo Americana. Espasa Calpe.
- (2) Enciclopedia Universal Ilustrada Europeo Americana. Espasa Calpe.
- Quinta Angustia: Representación del dolor de la Virgen María al sostener el cadáver de Jesucristo descendido de la cruz.
- (3) Antxon Aguirre Sorondo. Tierra y Gentes – 75 Temas Vascos.
- (4) -Juan Manuel González Cembellín. Hiri-bilduaren hiri-bilakaera. LEKEITIO. Lekeitioko Erakusketa Historikoaren liburua.  
-Juan Manuel González Cembellín. Solasaldiak, 2019-05-06.
- (5) LUA/AML. Registro 24 - n.º 4.
- (6) LUA/AML. Registro 24 nº 12. 1469/11/16 -1519/12/31
- (7) LUA/AML. Registro 21 nº 18. 1545/11/23 -1545/11/23
- (8) -Archivo Uriarte. FSS\_A.U.\_BEINGOLEA, N. 1523. / N. 1513. / N. 2346. / N. 2390.  
-AHDFB. N0019/0382 – 1614-01-19  
- Euskadiko Artxibo Historikoa. Colmenares-Licono Oinetxeko Artxiboa. Lº 1F. Nº Lº 40. 1660-12-28.
- (9) LUA. Sig. DJ. 002/06. Testamento de Catalina de Acha. 1536-11-27.
- (10) LUA. Sig. DJ. 002/08. 1556-07-23. Fº1vº. Testamento de García de Ibaseta.
- (11) Uriarte Artxiboa. FSS\_A.U.\_BEINGOLEA, N. 1513. 1582-06-12
- (12) Uriarte Artxiboa. FSS\_A.U.\_BEINGOLEA, N. 2346. 1582-06-12
- (13) Uriarte Artxiboa. FSS\_A.U.\_BEINGOLEA, N. 2390. 1590-06-26.
- (14) Jaione Velilla Iriondo, Arquitectura y Urbanismo en Lekeitio – Siglos XIV al XVIII, A.M.L. R.º 56, f.º 32v.º (1590)
- (15) AHDFB. N0019/0382 – 1614-01-19.
- (16) Euskadiko Artxibo Historikoa. Colmenares-Licono Oinetxeko Artxiboa. Lº 1F. Nº Lº 40. 1660-12-28.
- (17) Vicente de Urquiza - Iglesia Parroquial de Santa María de Lekeitio.
- (18) LUA/AML. Registro 60, fº 42. 1727/1728. “Cuentas de propios y arbitrios...”
- (19) LUA/AML. Registro 11, nº 11, fº 78. 1770.
- (20) Uriarte Artxiboa. FSS\_A.U.\_BEINGOLEA, N. 1523. 1546-06-06.
- (21) Uriarte Artxiboa. FSS\_A.U.\_BEINGOLEA, N. 2390. 1590-06-26.
- (22) AHDB. Lº 1552, nº 12 (7-1768 / 12-1770)
- (23) Uriarte Artxiboa. FSS\_A.U.\_BEINGOLEA, N. 1523. 1546-06-06.
- (24) Uriarte Artxiboa. FSS\_A.U.\_BEINGOLEA, N. 2346. 1582-6-12.
- (25) Uriarte Artxiboa. FSS\_A.U.\_BEINGOLEA, N. 1513. 1582-06-12.
- (26) AHDFB. N0019/0382 – 1614-01-19.
- (27) AHDFB. N0305/0022 - 1730-10-23.
- (28) LUA/AML. Registro 50, f.º 124-125. 26-08-1770.
- (29) LUA/AML. Registro 11, nº 11, fº 77. 1770.
- (30) LUA/AML. Registro 11, nº 11, fº 78. 1770.
- (31) -José Ángel Barrio Loza. Eraikitako paisaia. LEKEITIO. Lekeitioko Erakusketa Historikoaren liburua.  
-Ana Isabel Prado Antunez. Lekeitio II.- Monografías de Pueblos de Bizkaia. Diputación Foral de Bizkaia 2004, p. 229.
- (32) Jesús Muñiz Petralanda. Lekeitioko erlijio-ondarearen gida.
- (33) LUA/AML Registro 17, nº 1. (11-07-1514).
- (34) -Jaione Velilla Iriondo. Arquitectura y Urbanismo en Lekeitio – Siglos XIV al XVIII.  
- LUA/ AML. Registro 42, fº 84v. 1528.
- (35) Ascensión Pastor Porres y Beatriz Salaverri Aguilar. BREVE HISTORIA DE VIZCAYA Y SUS INSTITUCIONES: “El cargo de Corregidor del Señorío de Vizcaya tiene un claro significado de representante del Rey en su calidad de Señor de Vizcaya. En Vizcaya el Corregidor representaba al Rey en todo el territorio del Señorío y en todo él ejercía sus amplias facultades gubernativas y jurisdiccionales”.
- (36) Juan Manuel González Cembellín. Solasaldiak, 2019-05-06.
- (37) LUA/AML, Registro 42, f.º 84v.º (16 de junio de 1528). Que sea franco de pagar el pedido, el que adereza la lampara de la Cruz del Portal viejo.
- (38) LUA/AML. Registro. 27 nº 17. 1660.
- (39) BIZKAIKO BATZAR ETA ERREJIMENDUAK. Batzar Aktak. V. tomoa. LUA/AML. Registro. 27 nº 15. 1660. LUA/AML. Registro. 27 nº 17. 1660. LUA/AML. Registro. 27 nº 31. 1624.
- (40) LUA/AML. Registro. 27 nº 17. 1660.
- (41) Labayru, HISTORIA GENERAL DEL SEÑORÍO DE VIZCAYA. IV. tomoa.